



**Arartekoaren 2016R-758-15 Ebazpena, 2016ko apirilaren 4koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari gomendatzen diogu neurriak har ditzan sarbide elektroniko neutrala bermatzeko helburuz norberaren errenta-aitorpena era telematikoa aurkezteko aplikazioan.**

### Aurrekariak

1. PFEZa Arabako Lurralde Historikoan ordaintzen duen zergadun batek, 2014ko ekitaldiko errenta-kanpainaren barruan, adierazi zigun ez zegoela ados Arabako Foru Aldundiak hartutako erabakiarekin, norberaren errenta-aitorpena era telematikoa aurkezteko aplikazioa Microsoft teknologiaz (Windows eta Explorer) besterik ez zelako garatu. Interesdunaren esanetan, horrela konfiguratutako aplikazioa ez zen bateragarria beste teknologia batzuk, askeak zein ordaindupekoak, erabiltzen zituzten zergadunen aukerarekin.

Kexaren sustatzaileak azpimarratu zuenez, Arabako Foru Ogasunak teknologia hori ezarrita, zergadunak behartzen zituen merkatuan 120 euro inguru balio zuen produktu jakina erostera, errentaren aitortpena era telematikoa aurkeztu ahal izateko beharrezko tresna lortu nahi bazuten.

Kexagilearen iritziz, zergadunek herri-administrazioetara zeinahi bide telematikoz jotzeko aukera izan beharko lukete, administrazioak teknologia zehatzik, izatezkoa edo berariazkoa, ezarri gabe.

2. Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Sailari egindako eskabidean adierazi genuenez, gure iritziz, Herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 4. artikulua jasotzen duen neutraltasun-printzipioak herri-administrazio publiko guztien jardueraren oinarria izan behar du eta, ildo horretan, foru ogasunek estandar irekien erabilera bultzatu behar dute, hau da, estandar publikoak bultzatu behar dituzte, doako erabilerakoak edo horien kostua dela eta, eskuragarritasun-eragozpenik sorrarazten ez dutenak, betiere halakoak erabiltzeagatik, jabetza intelektualaren edo industrialaren ziozko eskubidea ordaintzera baldintzatuta ez daudenak.
3. Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Sailak emandako erantzunean, honakoa onartu du: *“11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa izatearenak. 4. artikuluko i) letran jasotzen duen neutraltasun teknologikoaren printzipioa aplikatzekoa da herri administrazioek herritarrei oro har eman behar dizkieten zerbitzu teknologikoetan eta, beraz, zerga aitortpenak telematikoki aurkezten denean ere eska daiteke”.*

Era berean, Arabako Foru Aldundiko Ogasunak emandako erantzunean, ondokoa onartu du: *“Jakin badakigu, egunero egiten direla saioak, Windows*





*plataforma duten ekipoetatik ez ezik, Linux, Macintosh eta sistema mugikorretatik ere”.*

Beste alde batetik, sailak adierazi du Arabako Foru Ogasunak, errenta-kanpaina guztietan, ahalegin handia egiten duela giza baliabidez eta baliabide teknologikoz hornitzeko, zergadun guztiek PFEZa ordaintzeko betebeharra gauza dezaten doako eran. Horretarako, hainbat bide eskaintzen zaie zergadunei norberaren errenta-aitorpena aurkezteko.

Zehazki esanda, Arabako Foru Ogasunak azpimarratu nahi izan du PFEZaren aitortpena aurkezteko eskaintzen diren lau moduetatik, kexak biri baino ez diela eragiten, hain zuzen ere: autorenta eta rentared izenekoak.

*Autorenta* izena ematen zaie paperean eskuz egiten diren aitortpenei edo, PFEZaren Laguntza Programaren bidez egin eta, inprimatu ondoren, Foru Ogasunak erregistratzeko aurkezten direnei; *Rentared*, berriz, zergadunek beraiek PFEZaren Laguntza Programaren bidez egin eta Arabako Foru Ogasunera egoitza elektronikoa erabiliz bidaltzen diren aitortpenei deritze.

Errenta aitortpena era telematikoa aurkezteko bi moduei dagokienez, zehaztu da Laguntza Programa dela Windows teknologian oinarritzen den plataforma jakina behar duena. Hala, konfigurazio jakin horren aldeko hautua bi arrazoitan funtsatzen da: Windows erabilera-estandarra orokortuena delako herritarren eta enpresen artean eta baliabideak ekonomizatzeko printzipioa nagusi delako: *“dauden plataforma guztietara (eta zergatik ez sistema mugikorretara ere) bideak irekiz gero, programa garatzearen kostua halako 2, 3 edo gehiago izango litzatekeelako”.*

Azkenik, txostenak dio Laguntza Programa erabiltzea hautazkoa dela eta aitortpen guztien % 3 baino ez dela aurkezten era telematikoa *Rentared* aukeraren bidez. Bestetik, laguntza-programak gainerako plataformentzat prestatzeak, itxura denez, beste pertsona batzuei errenta aitortpena horrela aurkezteko aukera eman arren, foru erakundetik ez dute uste horrela egiteak kopuru esanguratsuan igoaraziko lukeela aurkeztutako aitortpenen kopurua.

### Gogoetak

1. Arabako Foru Ogasunaren jarduketa aztertzerakoan, neutraltasun-printzipiotik abiatu behar dugu eta, horren ondorioz, printzipio horrek herri-administrazioei ekartzen dien betebeharretatik, 2007an, herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea indarrean hasi zenez geroztik.

Edonola ere, hori ez da eragozpena Arabako Foru Ogasunak urtero-urtero errenta-kanpaina guztietan egiten duen ahalegina agertu eta balioesteko, zinez saiatzen baita zergadunek errenta-aitortpena aurkezteko modua izan dezaten





doako eran. PFEZaren aitortpena aurkezteko baliabideen eskaintza beste bi aukerarekin osatzen da: rentafácil eta renta@raba.

Rentafácil izena ematen zaie Arabako Foru Ogasunak zergadun jakin batzuei bidaltzen dien aitorten-proposamenei. Proposamena jasotako zergadunek onar dezakete eta, nahi izanez gero, kontzeptu osagarriak sar ditzakete aitorpenean.

Renta@raba PFEZaren aitortpenak egiteko zerbitzua da eta doan eskaintzen zaie zergadunei.

Hala eta guztiz ere, gomendio honen aurrekarietan azaldu dugunez, kexa honen xede den arazoa autorenta eta rentared aukeren bidez errenta-aitorpenei dagokie, betiere Microsoft teknologiaz hornitutako plataformak erabiltzen ez badira.

2. Herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 4. artikulua informazioaren teknologien erabilerak bete beharreko printzipio orokorrak arautzen ditu. Artikulu horrek dioenez: *“Informazio-teknologiak erabiltzeko orduan, herri-administrazioek Konstituzioan eta ordenamendu juridikoan ezarritako mugak bete beharko dituzte, bai eta herritarrek aitortuta dituzten gainontzeko eskubideak errespetatu ere, honako printzipio hauei jarraituz: (...)*
1. *Neutraltasun teknologikoari eta aurrerapen teknikoari eta komunikazio elektronikoei moldatzeko gaitasunaren printzipioa: herritarrek eta herri-administrazioek askatasuna izan behar dute aukera teknologikoen artean hautatzeko, eta, era berean, merkatu librean azaltzen joaten diren aurrerapen teknikoak askatasunez ezartzeko eta garatzeko. Hori dela-eta, herri-administrazioek estandar irekiak erabiliko dituzte, edota, hala dagokionean eta horien osagarri, herritarren artean zabalduenak daudenak”.*

11/2007 Legeak berak xedatzen duenez, estandar ireki batek *“honako baldintzak bete behar ditu:*

- *publikoa izatea eta doan erabiltzeko modukoa, edo kosturik badauka, ez du irispidea eragozteko modukoa izan beharko.*
- *erabiltzeko eta aplikatzeko ez da jabetza intelektual edo industrialeko eskubiderik ordaindu beharko”.*

Beste alde batetik, lege horren 6. artikulua badakartza herritarren eskubideak herri-administrazioekiko harreman telematikoetan. Aipatutako artikulua ondokoa dio:





*"1. Herritarrek eskubidea dute herri-administrazioekin izan behar dituzten harremanak bitarteko elektronikoz bideratzeko, bai 30/1992 Legearen 35. artikulua jasotako eskubideak baliatzerakoan, bai informazioa eskatzerakoan, kontsultak edo alegazioak egiterakoan, eskabideak egiterakoan, norberaren adostasuna adierazterakoan, uziak aurkezterakoan, ordainketak egiterakoan, transakzioak egiterakoan eta ebazpenen eta administrazio-egintzen aurka egiterakoan ere.*

*2. Horrez gain, herritarrek, administrazio-jardueran bitarteko elektronikoak baliatzeari dagokionez, honako eskubide hauek dituzte, betiere lege honek ezarritakoaren arabera erabiltzeko: (...)*

*k) Herritarrek eskubidea dute herri-administrazioekiko harremanetarako nahi duten aplikazioa edo sistema aukeratzeko; betiere, estandar irekikoa izan behar du, edo, behintzat, herritarren artean zabalduenetako bat".*

Hau da, arauak ezartzen dituen manuetan oinarriturik, lau ondorio zabalek badaukate eragina administrazioan:

- Administrazioak ezinbestean bete behar du neutraltasun-printzipioa, printzipio hori bete ezik, herritarrek ez luketelako hautabide teknologikorik aukeratzeko modurik, arauak aldarrikatzen duen bezala.
- Printzipio hori bete dadin, herri-administrazioek estandar irekiak erabili behar dituzte.
- Herritarrek administrazioekin bide edo era telematikoz harreman jartzeko eskubidea dute.
- Gainera, eskubidea gauzatu ahal izateko, herri-administrazioekin harremanetan jartzeko aplikazioak edo sistemak aukeratzeko eskubidea dute.

Ukaezina da Microsoft teknologiak, potentzial handia eduki eta horren erabilera orokortuta egon arren, ez diola erantzuten legeak araututako estandar irekiari.

Herri-administrazioek herritarrek arruntan erabiltzen dituzten estandarrak erabil ditzakete, baina, edonola ere, modu osagarrian erabil ditzakete eta estandar irekiez gaineko aukera gisa, halakoak erabiltzea ezartzen baitie 11/2007 Legeak herri-administrazioei.

3. Bidezko deritzogu Arabako Foru Ogasunak ahaleginak egiteari inbertitutako baliabideen eragingarritasuna maximizatzeko eta, beste testuinguru batean, beharbada, ez genuke ezer esatekorik. Hala eta guztiz ere, erakunde honek ez du bidezkotzat jotzen baliabideak ekonomizatzeko printzipioa baliatzea, zergadunen sarbide elektronikoa izateko eskubidea mugatzen bazaie nahitaezko aplikazio baten zioz, hots, Laguntza Programaren zioz, errenta-





aitorpenak aurkezteko Microsoft teknologiaz ez diharduten plataformak erabiliz.

Horren haritik, aipatu behar dugu 11/2007 Legeak jasotako erreformen arrazoirik behinena hauxe dela: *"herritarrei zerbitzurik onena eskaintzea"*, legearen beraren zioen azalpenean adierazten den moduan.

Zioen azalpena oso argigarria da, legegileak araubide berriaren bidez lortu nahi zuen helburu nagusia 30/1992 Legearen 45. artikulua hastapen gogotsuak gainditzea zela ulertzeko, artikulua horrek ez zuelako aurrera egiteko balio izan.

*"Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta bere lehen bertsioan dagoeneko, 45. artikuluan, jaso zuen Administrazioak teknika eta baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiltzera eta abian jartzera joko duela, bere jardura garatzeko eta eskumenak baliatzeko, eta herritarrek baliabide horiek erabil ditzaketela Administrazioekiko harremanetan, baldin eta baliabide horiek bateragarri badira Administrazioak «dituen baliabide teknikoekin». (...)*

*Horregatik, lege honek «behar dute» jarri nahi du, «dezakete» zegoen tokian".*

Esan nahi da, legegilea jakitun zen araudi berriak kostu handiagoak ekarriko zituela. Eta, nolana ere, teknologia-mota guztiekin bateragarri izan behar zuen sarbide elektronikoko sistema ezartzeko apustu garbia egin zuen, bereziki, estandar irekiak erabiltzen dituzten teknologiak ezartzeko apustua.

Horren ondorioz, herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzko legeak ez du aldeztu herritarren artean zabalduen dauden teknologien erabilerarekin bakarrik bateragarria den eredurik.

Herri-administrazioei dagokie ahalik eta erraztasun handienak ematea, herritarrek nahi baldin badute, baliabide telematikoak erabiltzeko aukera izan dezaten administrazioarekiko harremanetan. Dena dela, harreman hori herritarrek dituzten beharrezanean egokituko bazaie, modu eroso eta errazean eskaini behar da, eta beraz, laguntza-programa eta osagarrietarako sarbidea izan behar du.

4. Arloko adituek esaten duten bezala, *"la implementación de un escenario de neutralidad tecnológica no es una tarea fácil y siempre debe ser entendida como un proceso," non "tener en cuenta el escenario actual, que suele revelar algunos o muchos aspectos de dependencia tecnológica en diferentes áreas y en diferentes aspectos de la tecnología, ya sea software, hardware o una combinación de ambos."*

Edozelan ere, herritarrek herri-administrazioarekin baliabide telematikoaren bitartez komunikatzeko eskubidearen gauzapean badakarkie betebeharrak.





korrelatiboa administrazioei. Eta betebeharraren abiaburua dugu baldintzak sustatzea askatasuna eta berdintasuna egiazkoak eta eraginkorrak izan daitezzen. Horren ondorioz, neutraltasun teknologikoaren eta informazioaren zein komunikazioaren teknologien aurrerabidera egokitzeko printzipioa bete-betean gauzatzea galarazten edo zailtzen dituzten oztopoak kendu behar dira.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### Gomendioa

Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Sailak neurri egokiak har ditzan errenta-aitorpena era telematikoan (aplikazioan sarbide elektronikoa izanda) aurkeztu nahi duten zergadunek zerga-betebeharrak betetzeko modua izan dezaten eta, beraz, aplikazio horretara sartzeko eskubidea gauzatzeko aukera izan dezaten, Herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 6. k artikulua arautzen duenari jarraiki.

Herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 4. artikulua jasotzen duen neutraltasun-printzipioak herri-administrazio publiko guztien jardueraren oinarria izan behar du eta, ildo horretan, foru ogasun horrek estandar irekien erabilera bultzatu beharko luke, hau da, estandar publikoak bultzatu beharko lituzke, doako erabilerakoak edo horien kostua dela eta, eskuragarritasun-eragozpenik sorraraziko ez luketenak, betiere halakoak erabiltzeagatik, jabetza intelektualaren edo industrialaren ziozko eskubidea ordaintzera baldintzatuta ez daudenak.

